



Faltsutasuna, zeinen aurpegi itsusi eta hotza... Hobe da gutxi izatea, baina zu zeu izan, zeure bizitza eta zeure lana gezur batean oinarritzea baino. Hitzak... besteekin, geure buruarekin ondo geratzen saiatzeko darabiltzagun hitz horiexek... Bizitza gezur batean oinarritzea bizitzeari uko egitea da; edo, besterik gabe, uko-egite bat da... Antza denez, bat beharturik dago istorio bat asmatzera, baita zer asmatu ez dagoenean ere. Kontsekuentek izan beharrak gara, ordea: ideien putzua lehortu bada, ez dago tematzeko arrazoirik. Tema dadila “idazle profesionala”, hartan hainbeste badoakio. Baina, literatura hileko diru-sarrera antzeko zerbait bilakatu ez bazaizu, orduan ez dago zertan tematu. Ideiak hustu egiten direnean, musen agertokitik atera eta literatura bazter utzi. Sormena elektrizitatea da. Sortzeak barrutik erre egin behar zaitu. Barrutik bizirik sentiarazi behar zaitu, paper-zikintzaile arrunt bihurtzera iritsi gabe...